



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko maiatzaren 23a

48. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, zahartzaroko eta elbarritasuneko nahitaezko aseguruaren pentsioak (SOVI) jasotzen dituztenei, haien dirusarrerak lanbide arteko gutxieneko soldata baino gutxiagokoak direnean, laguntza osagarria emateari buruzkoa. Foru Lege proposamena bazter utzia (3. or.).

C SAILA:

Bestelako proposamenak:

—Lege proposamena, Hauteskundeetako araubide orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 50. artikulua aldatzekoa. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (4. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Barne Ministerioa premiatzen da ken ditzan iragan martxoaren 8an Iruñean gizonen eta emakumeen berdintasunaren aldeko elkarretaratzea egiten saiatu ziren eta Gobernuak Nafarroan duen Ordezkaritzak salatu zituen pertsonen jarritako salaketak eta administrazio-zehapenak. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da gazteen sexualitatearen arloko osasun-laguntzako plana presta dezan. Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztu du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da bete dezan urtarrilaren 28ko 4/2004 Foru Aginduan ezarritakoa eta abian jar dezan Nafarroan bularra ematea sustatzeko batzorde aholku-emaile teknikoa. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da berma dezan hizkuntza eskola ofizialek hizkuntzak hobetzeko ikastaro espezializatuak, maila desberdinetan, antolatu, eman eta ziurtatu ahal izatea, abenduaren 29ko 1629/2006 Errege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraikiz. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Liburutegiei buruzko Foru Legea gara dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, deklaratzeko eta premiatzeko eza Nafarroako Unibertsitate publikoan egun aztertzeko ari diren ikasketa-eskaintzaren berregituraketan, eta kasua bada NUPeko ikasketa-eskaintzari buruz egin beharreko eztabaida-foroan, Giza Zientzietako karrera ezartzeko aukera azter dadin. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Pablo Sarasate fundazioarekin, Iruñeko Orfeo-oiarekin eta Iruñeko Ganbera Abesbatzarekin dituen hitzarmen edo harreman egonkorren esparruan, erabaki dezan entitate horiei eskatzea urteroko maiatzaren 31 baino lehen zenbait kontabilitate agiri aurkeztuz Parlamentuan. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (12. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, jakiteko zergatik Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuak onartu dituen 2007an Donejakue Bideko Autobian animaliak sarteagatik gertaturiko istripuek eragindako kalteengatik erreklamazio guztiak. José M.^a Vázquez Royo jaunak egina (13. or.).
- Galdera, Elizondo eta Altsasuko Foruzaingoaren polizia etxeetako kanpoko errotiluzioari buruzkoa, Paula Kasares Corrales andreak egina (14. or.).
- Galdera, jakiteko asmorik dagoen Nafarroan eraikinen ziurtatze energetikoa arautuko duen foru arau bat egiteko, eta, kasua bada, noiz aurkeztuko den Parlamentuan, Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (14. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuak hartu dituen neurriak buruzkoa, legea betetzen ez duten eta Justizia Auzitegi Nagusiaren ebazpenak saihesten dituzten familien eta ikastetxeen aurrean, María Victoria Arraiza Zorzano andreak egina (15. or.).
- Galdera, Luis Amigó ikastetxe itunduak urtebeteko eta bi urteko ikasleentzako gelak jartzeko duen baime-nari buruzkoa, María Victoria Arraiza Zorzano andreak egina (16. or.).
- Galdera, etxetresnen Renove planari buruzkoa, Maiorga Ramírez Erro jaunak egina (17. or.).
- Galdera, transplanteei eta ehunei buruzkoa, Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak egina (17. or.).
- Galdera, 2006an Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren gastua handitzeari buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egina (19. or.).
- Galdera, jakiteko Foru Komunitateko administrazioko eta haren erakunde autonomoetako aldi baterako zenbat kontratuk ekarri duten berekin lanpostuak sortzea eta behin betikoz betetzea eta, horrenbestez, lanpostu hutsak eta haiei dagozkien lan eskaintza publikoak, 2007an eta 2008an. Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (20. or.).
- Galdera, jakiteko jarraibiderik eman den edota jarduerarik gauzatu den Nafarroako Foru Komunitateko bulego publikoek irisgarritasunaren arloko gutxienezko baldintzak bete ditzaten eta, zehazki, Arkitektura-oztopoei buruzko Foru Legea betetze aldera. Amanda Acedo Suberbiola andreak egina (20. or.).
- Galdera, udalerrietan adineko pertsonak dituzten beharizanen gaineko azterlanak egiteko udalei ematen zaizkien laguntzei buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (21. or.).
- Galdera, Nafarroako txirotasun-indizeei eta oinarritzko errentari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (22. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak 2007an dirulaguntzarik edo inolako laguntzarik eman dion Fundación Navarra para la Diversificación Empresarial fundazioari eta, halaber, jakiteko asmorik duen aipatu fundazioari 2008an laguntzarik emateko. José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak egina (22. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, zahartzaroko eta elbarritasuneko nahitaezko aseguruaren pentsioak (SOVI) jasotzen dituztenei, haien dirusarrerak lanbide arteko gutxieneko soldata baino gutxiagokoak direnean, laguntza osagarria emateari buruzkoa.

FORU LEGE PROPOSAMENA BAZTER UTZIA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 137.3 artikuluan ezarritakoa betez eta 2008ko maiatzaren 12ko Lehendakariaren erabakiarekin bat, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Batzordeak honako Foru Lege proposamenari buruz onetsitako irizpen negatiboa: zahartzaroko eta elbarritasuneko nahitaezko aseguruaren pentsioak (SOVI) jasotzen dituztenei, haien dirusarrerak lanbide arteko gutxieneko soldata baino gutxiagokoak direnean, laguntza osagarria emateari buruzko Foru Lege proposamena. Proposamen hori 2007ko irailaren 28ko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Irizpen negatiboa

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Batzordeak 2008ko maiatzaren 6an egindako bileran hartutakoa.

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak Foru Lege proposamen bat aurkeztu zuen, zahartzaroko eta elbarritasuneko nahitaezko aseguruaren pentsioak (SOVI) jasotzen dituztenei, haien dirusarrerak lanbide arteko gutxieneko soldata baino gutxiagokoak direnean, laguntza osagarria emateari buruzkoa. Foru Lege proposamen horri dagokionez inolako testurik onesteari ezezkoa eman zaionez, aipatu Foru Lege proposamena bazter utzia gelditzen da.

C saila:
BESTELAKO PROPOSAMENAK

Lege proposamena, Hauteskundeetako araubide orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 50. artikulua aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz eta Espainiako Konstituzioaren 87.2 artikularen babesean, Hauteskundeetako araubide orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 50. artikulua aldatzeko Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. eta 211. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Izapidetzeko onartzea Hauteskundeetako araubide orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 50. artikulua aldatzeko Lege proposamena, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Hauteskundeetako araubide orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 50. artikulua aldatzeko Lege proposamena

Hauteskundeetako araubide orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 50. artikulua aldatzeko Lege proposamena hauteskunde kanpainako ekitaldiak arautzen ditu, eta behar diren neurriak ezartzen, halaber, botere publikoek kanpainan interferentziarik ez sortzeko eta hautesleentzako botoa alde batera ez bideratzeko. Bereziki ezartzen da hautagaieiz, alderdi politikoiez, federazioez, koalizioez edo eta hautesle-taldeez beste inongo pertsona juridikok ezin izanen duela hauteskunde kanpainarik egin, hau da, sufragioak erakartzera bideratutako zilegizko jarduerarik, hauteskundeetarako deialdia egiten den egunetik aurrera, betiere Konstituzioan aitorturiko adierazpen askatasunerako eskubidea (lege organiko 50. artikulua) ukatu gabe.

Ezarritako horiek gorabehera, ohikoa da hauteskundeak egin aurreko hil eta asteetan administrazio publikoak obra, eraikin edo zerbitzu publiko ugari inauguratzen, obretako lehen harriak jartzen edo antzekoetan aritzea. Jarduera horrek eragin bat izaten du herritarrengan; izan ere, iruditzen zaie arduradun politikoek nahita bilatzen dutela hauteskunde-deialdiak hurbil daudenean halakoean aritzea, hauteskunde horietako emaitzetan eragiteko, betiere baliabide publikoak erabiliz heretsiki alderdietakoak diren interesen alde.

Aipatu ekitaldietako benetako arrazoen inguruko eta baliabide publikoen erabilera zuzenaren inguruko herritarren susmo guztiak desagerrarazteko, eta jarduera horiek eta hauteskunde-prozesuak ongi bereizteko, hain zuzen ere haien erregulartasuna eta gardentasuna bermatze aldera, bidezkoa da hauteskundeak arautzen dituzten xedapenei beste bat eranstea; haren bidez, berraz debekatuko dira ekitaldi horiek hauteskundeetarako deialdia egiten den egunetik hauteskunde-egunera arte.

Testu artikuluduna

Artikulu bakarra.

Hauteskundeetako araubide orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 50. artikuluari 4. idatz zatia gehitu zaio. Hona testua: "4. Hauteskundeetarako deialdia egiten duen dekretuaren egunetik hauteskundeak egiten diren egunera arte, hauteskunde prozesuaren eragin-

eremuan eskumenak dituzten administrazio publikoek ez dute obra, eraikin edo zerbitzu publikoei buruzko inaugurazio ekitaldirik eginen, ez eta lehen harria jartzeko ekitaldirik ere".

Azken xedapena.

Lege organiko honek Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Barne Ministerioa premiatzen da ken ditzan iragan martxoaren 8an Iruñean gizonen eta emakumeen berdintasunaren aldeko elkarretaratzea egiten saiatu ziren eta Gobernuak Nafarroan duen Ordezkaritzak salatu zituen pertsoneri jarritako salaketak eta administrazio-zehapenak.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Barne Ministerioa premiatzen baita ken ditzan iragan martxoaren 8an Iruñean gizonen eta emakumeen berdintasunaren aldeko elkarretaratzea egiten saiatu ziren eta Gobernuak Nafarroan duen Ordezkaritzak salatu zituen pertsoneri jarritako salaketak eta administrazio-zehapenak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, Osoko Bilkurarako ondoko mozioa aurkeztu du:

Zioen azalpena

Martxoaren 8an Emakumearen Eguna ospatzeko manifestazioak deitu zituzten Espainia osoan.

Egun horrek balio sinboliko handia du gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren aldeko borrokan, ez soilik Espainian, baizik eta mundu osoko emakumeentzat.

Ulergaitza bada ere, beste erkidego batzuetan gertatutakoaz bestela, Gobernuaren Ordezkaritzak debekatu egin zituen Nafarroan emakumeen eskubideen aldeko manifestazioak, nahiz eta lehenago baimenduak zituen, eskatutakoa ez bestelako ibilbide batekin.

Nafarroako emakume talde batek Iruñeko Gaztelu Plazan elkartzea erabaki zuen, estatu demokratiko batean manifestazioa egiteko debeku ulergaitz hori gorabehera. Polizia Nazionalak elkarretaratze baketsu hura sakabanatu zuen, eta zenbait parte-hartzaile identifikatu zituen. Orain, 300 eta 600 euro bitarteko isunak jarri dizkiete emakume horiei.

Erabaki proposamena

Nafarroako Parlamentuak Barne Ministerioa premiatzen du ken ditzan iragan martxoaren 8an Iruñean gizonen eta emakumeen berdintasunaren aldeko elkarretaratzea egiten saiatu ziren eta Gobernuak Nafarroan duen Ordezkaritzak salatu zituen pertsoneri jarritako salaketak eta administrazio-zehapenak.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 9an

Eleduna: Ion Erro Armendáriz

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gazteen sexualitatearen arloko osasun-laguntzako plana presta dezan.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gazteen sexualitatearen arloko osasun-laguntzako plana presta dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena:

Osasunaren Mundu Erakundeak, "Denentzako osasuna XXI. mendean" izeneko estrategian, politika eta programa publikoak berrikusteko aholkua ematen du, ondokoa helburu: gazteei aukera osasungarrienak eskaintzea, haien osasunean inolako eragin negatiborik gerta ez dadin. Estrategia horretan azpimarra berezia jartzen da ondokoei: gazteen sexu hezkuntza eta laguntza, eta preserbatiboak erraz lortu ahal izatea, nahi gabeko haurdunaldiak eta sexu bidezko eritasunak, GIBaren bidezko infekzioa barne, izateko arriskua murrizteko.

Ildo horretan, Osasunaren Mundu Erakundearen Europarako Eskualde Bulegoak oinarrizko zenbait osagai definitzen ditu, baldin eta gazteendako laguntza zerbitzuak nerabeentzako eskuragarriak eta erosoak izanen badira. Horra: toki eta

ordutegi egokiak, itxaronaldi laburrak, pribatutasuna, konfidentzialtasuna eta, hortaz, gurasoen baimenik behar ez izatea, langileen egonkortasuna eta erkidegoaren babesa. Orobat gomendatzen dute GIBaren nahiz, oro har, sexu bidezko infekzioen prebentzioari buruzko aholkua emateko zerbitzuak ezartzea, eta gizonen eta emakumeen antisorgailuak nahiz bestelako antisorgailuak, larrialdiko antisorgailua barne, eskuragarri izatea.

Europako Parlamentuak, sexu- eta ugalketa-osasunari nahiz arlo horretako eskubideei buruzko ebazpenean –2001/2128(INI)–, ondokoei buruzko hainbat gomendio ematen die estatu kideetako gobernuak: antisorkuntza, nahi gabeko haurdunaldiak eta abortua, nerabeen sexu- eta ugalketa-osasuna/sexu-hezkuntza eta sexu- eta ugalketa-osasunari buruzko politika orokorraren garapena.

Sexualitatearen arloko laguntza integrala osasun publikoaren oinarrizko helburua da edozein biztanle-talderentzat, eta bereziki nerabe eta gazteentzat, sexualitatearen bizipenak eragin berezia duelako nerabeen garapen pertsonal eta sozialean.

Hori dela eta, parlamentari honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gazteen sexualitateari buruzko osasun arloko laguntza-plana presta dezan.

2. Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio beharrezkoa den prozedura has dezan, "Gazteen kontsultetarako erreferentzia-zentroa" sortze aldera, eta gazteek informazioa eta aholkua jasotzeko tresnak bultzatzea.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du nerabeek eta gazteek preserbatiboak doan eskuratzeko modua hobe dezan, arreta berezia jarriz gizarte-arrisku handiko egoeran dauden gazteen sexu arloko osasun-beharrizanei.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 12an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Mozioa. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da bete dezan urtarrilaren 28ko 4/2004 Foru Aginduan ezarritakoa eta abian jar dezan Nafarroan bularra ematea sustatzeko batzorde aholku-emaile teknikoa.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Osasun Departamentua premiatzen baita bete dezan urtarrilaren 28ko 4/2004 Foru Aginduan ezarritakoa eta abian jar dezan Nafarroan bularra ematea sustatzeko batzorde aholku-emaile teknikoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta eta Maiorga Ramírez Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin:

Zioak

Urtarrilaren 28ko 4/2004 Foru Aginduak Nafarroan Bularra Ematea Sustatzeko Batzorde Aholku-emaile Teknikoa sortu zuen.

Foru agindu horren arabera, batzordeak ondo eginkizunak ditu:

– Bularra ematea sustatzeko jarduketa gida eta protokoloak egitea bultzatu eta aholku ematea.

– Amatasun zerbitzuetara bularra ematea sustatzeko materiala igortzea, gero obstetriziako kontsultetan, erditze geletan, ospitaleratze oinetan eta lehen mailako osasun laguntzako zentroetan banatzeko. Bularra ematea sustatzeko batzordeak sortzea proposatzea, amatasun zerbitzua bai baina horrelako batzorderik ez duten ospitaleetan.

– Foru Komunitatean amatasun zerbitzua duten ospitaleetan autoebaluazioa sustatu eta haren gainean aholku ematea "Haurraren Ospitale Adiskideak" izeneko galdetegiaren laguntzaz Amari ospitaleko alta eman ondotik, bularra ematearen aldeko taldeen eta umeei jarraipena egiten zaien lehen mailako osasun laguntzako zentroyen lana koordinatu eta gainbegiratzea.

– Medikuntzako erizaintzako eta laguntzaileendako ikasketa programetan bularra ematea sustatzeko lan ildoak sartzeta proposatzea.

– Bularra ematearen sustapenerako prestakuntza ikastaroak egitea proposatzea.

– Nafarroan arlo honetako prestatzaileendako prestakuntza ikastaroak egitea sustatzea.

– Ospitaleetan, osasun etxeetan eta profesionalen kidegoetan jarduerak sustatzea bularra ematearekin lotutako jarduna ezagutarazteko.

– Bularra ematearen sustapenarekin zerikusia izan eta osasun agintariak manatzen dioten beste edozein eginkizun.

4/2004 Foru Legeak indarra hartu zuenetik, batzorde aholku-emaileak bi bilera egin ditu: 2005eko urtarrilaren 24an eta 2006ko maiatzaren 3an.

Hori guztia dela eta, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkeztu du, eztabaidatu eta bozka dadin:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bete dezan urtarrilaren 28ko 4/2004 Foru Aginduan ezarritakoa eta abian jar dezan berriz ere batzorde aholku-emailea.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Parlamentuari urtero informa diezaion batzorde horrek eginiko lanari eta ateratako ondorioei buruz.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 13an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da berma dezan hizkuntza eskola ofizialek hizkuntzak hobetzeko ikastaro espezializatuak, maila desberdinetan, antolatu, eman eta ziurtatu ahal izatea, abenduaren 29ko 1629/2006 Errege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraikiz.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita berma dezan hizkuntza eskola ofizialek hizkuntzak hobetzeko ikastaro espezializatuak, maila desberdinetan, antolatu, eman eta ziurtatu ahal izatea, abenduaren 29ko 1629/2006 Errege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraikiz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta eta Maiorga Ramírez Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin:

2007-2008 ikasturtera arte, ikasle ofizialek 5 mailatan egin dituzte beren ikasketak hizkuntza eskoletan. Hirugarren maila gainditutakoan oinarrizko zikloko ziurtagiria lortzen zuten, eta bosgarren maila gainditutakoan, berriz, goi ziklokoa edo gaitasun agiria. Ikasle libreek ere lortzen ahal zituzten bi ziurtagiri horiek, goi zikloko ziurtagiria izaki Espainiako estatu osoan hizkuntzei dagokienez lortzen ahal zen ziurtagiririk gorena.

Europar Batasuneko estatu kideetako hizkuntza eskola publikoetako irakaskuntzarekin berdintze aldera eta haietan emandako tituluen homologazioa errazte aldera, Hizkuntzen Europako Erreferentzia-esparru Komuna taxutu da. Hartan

azaltzen dira trebetasunen araberako gaitasunak eta konpetentziak –idatzizko adierazpena, ahozkoa, irakurritzko ulermena, entzunezko ulermena eta komunikatzeko gaitasuna oro har–, eta sei maila ezartzen dira. Horra: A1, A2 (oinarrizko erabiltzailea), B1, B2 (erabiltzaile independentea), C1 eta C2 (erabiltzaile trebea).

Hezkuntzaren Lege Organikoak hiru mailatan antolatu zituen hizkuntza eskola ofizialetako ikasketak –oinarrizkoa, ertaina eta aurreratua–, eta ezarri zuen hizkuntza eskola ofizialak direla goiko mailak –ertaina eta aurreratua– emateko zentro ofizialak. Hezkuntzaren Lege Organikoak zioenez, Europako Kontseiluak “Europako Erreferentzia-esparru Komuna” izeneko agirian adierazitako gomendioak bete behar dituzte gure eskoletan eman beharreko hizkuntza-ikasketek.

Hezkuntza Ministerioak Hezkuntzaren Lege Organikoa garatzen duen errege dekretua onetsi du, ezin okerragoa izan dena Espainiako estatuko hizkuntza eskola ofizialen interesentzat. Heldu den ikasturteetik aitzina hizkuntza eskola ofizialetan B2. maila lortzera mugatzen da 1629/2006 Errege Dekretua. Hortaz, 1629/2009 Errege Dekretuak kalte larria eragiten die, atzerako eraginez, aipatu ziurtagiriaren titularren eskubideei –ziurtagiri horiek ministerioak berak edo/eta autonomia erkidegoek emanak dira, hizkuntza eskolek proposatuta–, baliokide egiten baititu lehengo gaitasun agiria eta goi ziklokoa eta Europako Erreferentzia-esparru Komuneko B2. maila.

Hori guztia dela eta, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkeztu du, eztabaidatu eta bozka dadin:

1. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du berma dezan hizkuntza eskola ofizialek hizkuntzak hobetzeko ikastaro espezializatuak antolatu, eman eta egiaztatu ahal izatea, hala maila oinarrizkoan, ertainean eta aurreratuan nola Europako Erreferentzia-esparru Komuneko C1 eta C2 mailatan, abenduaren 29ko 1629/2006 Errege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraikiz.

2. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen du aldatu beharreko arauak

alda ditzan, bermatze aldera orain arte izan duten balioa izanen dutela gaur arte emandako ziurtagiriek, C mailarako Europak eskatutakoaren baliokide direnek.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 13an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuia premiatzen da Liburutegiei buruzko Foru Legea gara dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuia premiatzen baita Liburutegiei buruzko Foru Legea gara dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Roberto Jiménez Alli, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen eledunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozioa aurkeztu du, Legebiltzarraren Osoko Bilkuran eztabaida eta onets dadin, Nafarroako Gobernuia premiatzeko Liburutegiei buruzko Foru Legea gara dezan.

Zioen azalpena

Iragan maiatzaren 8an, sozialisten parlamentu-taldeko kultura eta turismo arloetako eledunak galdera egin zion Gobernuari –Kultura eta Turismo kontseilariak eman zuen erantzuna–, Nafarroako liburutegi sistema arautzen duen azaroaren 19ko 32/2002 Foru Legearen betetze mailari buruz.

Kontseilariak, erantzunean, legea betetzat jo zuen neurri handi batean, eta kontrajarri egin ahal izan ziren haren ikuspuntua eta sareko profesionalena, sektoreari lotutako pertsonena eta galdera egin zion parlamentu-taldearena.

Galdetzaileak adierazi zuenez, legearen 3. artikulua arabera Nafarroako Foru Komunitateari dagozkion eskumenak aztertuz gero, ez dago zalantzarako zirrikiturik: emateke daude a) letran aurreikusitako erregelamendu gehienak, Nafarroako liburutegi sistemaren zenbait alderdi arautu eta garatzekoak; garatzeke dago irakurketa publikoaren mapa, b) letran aurreikusia; garatzeke, berrikusteke eta gaurkotzeke dago Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren zerbitzu-zorroa, c) letran aurreikusia; garatzeke daude Nafarroako liburutegi sistemaren euskarri-zerbitzuak, d) letran aurreikusiak, eta birdiseinatzeke dago liburutegi zerbitzuen plan estrategikoa, h) letran aurreikusia –plan horren bidez garatu behar dira liburutegi zerbitzuen jarduera eta prestazioen jarraibide orokorrak, definitu behar dira epe ertaineko eta epe luzeko helburuak eta planifikatu behar dira helburu horiek lortzeko beharrezkoak diren baliabideak, irakurketa publikoaren maparen eta kudeaketako gainontzeko tresnen barruan–.

Edonork daki, bestalde, zein garrantzitsua den legegintzaldi honetarako aurreikusita dagoen jarduketa, Nafarroako Liburutegia eta Filtoteka abian jartzekoa. Jarduketa horrek, ordea, ez du Gobernuia salbuesten bere betebeharrak betetzetik; aitzitik, pizgarri izan behar du, kultur gune berri eta handi hori Nafarroako liburutegi sisteman txertatzeko beharrezkoak diren tresnez hornitzeko Nafarroa.

Hori dena gogoan, legea onetsi zenetik bost urte baino gehiago igaro direlarik, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuia premiatzen du ondokoak egin ditzan:

1. Irakurketa publikoaren mapa, legeko 3.a artikuluan aurreikusia, Legebiltzarrean aurkez dezan, haren berri izan eta eztabaidatzeko.

2. Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren zerbitzu-zorroa, legeko 3.b artikuluan aurreikusia, gara dezan.

3. Liburutegi zerbitzuen plan estrategikoa, legeko 3.h artikuluan aurreikusia, aurkez dezan, liburutegi zerbitzuaren jardueretan eta hura ematean segitu beharreko jarraibideak garatzeko; epe motz eta luzerako helburuak zehatz ditzan eta horiek erdiesteko behar diren baliabideak planifika ditzan,

irakurketa publikoaren maparen eta kudeaketako gainontzeko tresnen barruan.

4. Ezartzea urriaren 1a izanen dela azken eguna legeko 3. artikuluan aurreikusitakoak –irakurketa publikoaren mapa, zerbitzu-zorroa eta plan estrategikoa– Legebiltzarrerara igortzeko.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 15ean

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

Mozioa. Horren bidez, deklaratzeko eta premiatzeko da ezen Nafarroako Unibertsitate publikoan egun aztertzen ari diren ikasketa-eskaintzaren berregituraketan, eta kasua bada NUPeko ikasketa-eskaintzari buruz egin beharreko eztabaida-foroan, Giza Zientzietako karrera ezartzeko aukera azter dadin.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez deklaratzeko eta premiatzeko baita ezen Nafarroako Unibertsitate publikoan egun aztertzen ari diren ikasketa-eskaintzaren berregituraketan, eta kasua bada NUPeko ikasketa-eskaintzari buruz egin beharreko eztabaida-foroan, Giza Zientzietako karrera ezartzeko aukera azter dadin.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta eta Maiorga Ramirez, Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 195. artikuluan babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Legebiltzar honek orain dela gutxi erabaki zuen Nafarroako Unibertsitate Publikoan medikun-

tzako karrera ezartzeko aukera aztertzea.

Ekimen hori koherentea eta egokia da; izan ere, Europan unibertsitatea berritzeko eremuaren barruan ikaskuntza plan berriak ari dira aztertzen, xede horrekin eman diren arauekin bat.

Gure erkidegoan ere bada gizarte eskari bat, ikasle askorena ere badena, erabaki proposamenan adierazten diren espezialitate edo ibilbideei dagokienez, baina Nafarroan ez da eskaintza hori garatu, eta, halatan, nafar ikasle askok beste unibertsitate batzuetara joan beharra dute espezialitate edo ibilbide horiek egiteko.

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Deklaratzea eta premiatzea ezen Nafarroako Unibertsitate publikoan egun aztertzen ari diren ikasketa eskaintzaren berregituraketan, eta kasua bada horri buruzko eztabaida-foroan, Giza Zientzietako karreran ondoko bi espezialitate edo ibilbideak ezartzeko aukera aztertuko dela:

A) Euskal filologia

B) Hizkuntza erromanikoen filologia, gehi karrera horretako gainontzeko ibilbide edo espezialitateak.

C) Bigarren hezkuntzako irakasleen prestakuntza masterra.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 14an

Foru parlamentarioak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramirez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Pablo Sarasate fundazioarekin, Iruñeko Orfeoiarekin eta Iruñeko Ganbera Abesbatzarekin dituen hitzarmen edo harreman egonkorren esparruan, erabaki dezan entitate horiei eskatzea urteroko maiatzaren 31 baino lehen zenbait kontabilitate agiri aurkez ditzaten Parlamentuan.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Pablo Sarasate fundazioarekin, Iruñeko Orfeoiarekin eta Iruñeko Ganbera Abesbatzarekin dituen hitzarmen edo harreman egonkorren esparruan, erabaki dezan entitate horiei eskatzea urteroko maiatzaren 31 baino lehen zenbait kontabilitate agiri aurkez ditzaten Parlamentuan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Patxi Zabaleta eta Maiorga Ramírez Nafarroa Bai parlamentu-taldeko eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin:

Zioak

Erabaki proposamenean adierazitako entitateak nortasun juridiko pribatuko entitateak dira,

baina badute aurrekontu publikoarekiko menpetasuna eta harreman iraunkorra bere funtzionamenduari dagokionez, eta interes publiko nabarmeneko zerbitzua ematen dute; hortaz, justifikatuta dago bi aldeen arteko hitzarmen bidezko harremana.

Horrenbestez, entitate horiei ematen zaien diru publikoa –kontratu bidezko bitariko harreman bidez eman behar zaiena– kontrolatze aldera, beharrezkoa da funts publiko horien kudeaketa aztertze eta egoki baloratzeko jarraibideak ezartzea.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Pablo Sarasate fundazioarekin, Iruñeko Orfeoiarekin eta Iruñeko Ganbera Abesbatzarekin dituen hitzarmen edo harreman egonkorren esparruan, erabaki dezan entitate horiei eskatzea urteroko maiatzaren 31 baino lehen ondoko kontabilitate agiriak aurkez ditzaten Parlamentuan:

1) Ekitaldi horretako aurrekontuak.

2) Aurreko ekitaldiko urteko kontuak, balantzeak eta galera eta irabazien kontua.

3) Kontu horien auditoretza, baldin eta halakorik badago, edo, bestela, Legebiltzarraren aldeko baimen espresa, Comptos Ganberari agin diezai-on kontu horiek aztertzea.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 12an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta eta Maiorga Ramírez Erro

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko zergatik Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak onartu dituen 2007an Donejakue Bideko Autobian animaliak sartzegatik gertaturiko istripuek eragindako kalteengatiko erreklamazio guztiak.

JOSÉ M.ª VÁZQUEZ ROYO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José M.ª Vázquez Royo jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zergatik Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak onartu dituen 2007an Donejakue Bideko Autobian animaliak sartzegatik gertaturiko istripuek eragindako kalteengatiko erreklamazio guztiak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari José María Vázquez

quez Royo jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Galderaren zioak

Foru parlamentari honek eginiko galdera baten erantzunean, Landa Garapeneko Departamentuak onartu zuen 2007an 15 erreklamazio aurkeztu zirela, ehizarako basa faunak Bideko Autobian eragindako istripuetan sortutako kalteak direla eta. Ondokoa jakin nahi dut erantzun hori dela eta:

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak bere gain hartu ditu, bere osotasunean, 2007an Donejakue Bideko Autobian animaliak sartzegatik gertaturiko istripuek eragindako kalteen erreklamazioak. Zergatik?

Iruñean, 2008ko maiatzaren 9an

Foru parlamentaria: José M.ª Vázquez Royo

Galdera, Elizondo eta Altsasuko Foruzaingoaren polizia etxeetako kanpo- ko errotulazioari buruzkoa.

PAULA KASARES CORRALES ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Paula Kasares Corrales andreak aurkeztutako galdera, Elizondo eta Altsasuko Foruzaingoaren polizia etxeetako kanpo-
ko errotulazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Paula Kasares Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamen-

duan xedatutakoaren arabera, Foruzaingoaren Altsasuko eta Elizondoko komisaldegietako kanpo errotulazioa dela eta, ondoko galdera hau egin nahi du, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak Osoko Bilkuran erantzun dezan.

2007an Altsasu eta Elizondon Foruzaingoaren komisaldegiek zabaldu zituzten ateak. Berriki, komisaldegi horietan kanpo errotulazioa paratu dute.

Hori horrela,

Zergatik Foruzaingoaren komisaldegi horietako kanpo errotulazioan Policía Foral idatzi da Foruzaingoa baino anitzez ere handiago? Gaztelaniak eta euskarak estatus ezberdina al dute herri horietan? Euskaldunok ikusmen hobea dugula uste al du kontseilari jaunak?

Iruñean, 2008ko maiatzaren 9an

Fou parlamentario: Paulares Kasares Corrales

Galdera, jakiteko asmorik dagoen Nafarroan eraikinen ziurtatze energetikoa arautuko duen foru arau bat egiteko, eta, kasua bada, noiz aurkeztuko den Parlamentuan.

AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amanda Acedo Suberbiola andreak aurkeztutako galdera, jakiteko asmorik dagoen Nafarroan eraikinen ziurtatze energetikoa arautuko duen foru arau bat egiteko, eta, kasua bada, noiz aurkeztuko den Parlamentuan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak ahoz erantzun dezan:

Galderaren testua

Eraikinen ziurtatze energetikoa ezartzen duen Errege Dekretua onetsita eta indarrean dagoenez gero, ba al duzu asmorik Nafarroan eraikinen ziurtatze energetikoa arautuko duen foru arau bat Legebiltzarrean aurkezteko? Hala baldin bada, noiz aurkeztuko duzu?

Iruñean, 2008ko maiatzaren 15ean

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

Galdera, Hezkuntza Departamentuak hartu dituen neurriei buruzkoa, legea betetzen ez duten eta Justizia Auzitegi Nagusiaren ebazpenak saihesten dituzten familien eta ikastetxeen aurrean.

MARÍA VICTORIA ARRAIZA ZORZANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkeztutako galdera, Hezkuntza Departamentuak hartu dituen neurriei buruzkoa, legea betetzen ez duten eta Justizia Auzitegi Nagusiaren ebazpenak saihesten dituzten familien eta ikastetxeen aurrean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Victoria Arraiza Zorzanok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, Hezkuntza kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Zioak

Nafarroako Auzitegi Nagusiak ez ditu onartu bi eskari, zeinen bidez eskatzen baitzen herritartasunerako hezkuntza ikasgaia ikasi behar ez izatea eta eskola horietara joatetik salbuestea harik eta ikasgai horren aurka "Navarra educa en libertad" plataformak aurkeztutako errekursoak ebazten diren arte.

Auzitegi Nagusiak kautelazko neurri hori ukatu du, interes orokorra edo hirugarrenena larriki galazar dezakeela alegatuz. Salak dio alde baten interesaren gaitetik interes publikoa nagusitu behar dela.

Halere, plataforma hori osatzen duten familiek iragarri dute euren seme-alabek eskolara joan gabe jarraituko dutela eta 80 bat ikasle direla ikastetxean geratzen direnak, baina beste jarduera batzuk eginez.

Plataformak emandako informazio hori ikusita, ondokoa jakin nahi dut:

Zer neurri hartu ditu Hezkuntza Departamentuak legea betetzen ez duten eta Justizia Auzitegi Nagusiaren ebazpenak saihesteko asmoa duten familien eta ikastetxeen aurrean?

Iruñean, 2008ko maiatzaren 9an

Foru parlamentaria: María Victoria Arraiza Zorzano

Galdera, Luis Amigó ikastetxe itunduak urtebeteko eta bi urteko ikasleentzako gelak jartzeko duen baimenari buruzkoa.

MARÍA VICTORIA ARRAIZA ZORZANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkeztutako galdera, Luis Amigó ikastetxe itunduak urtebeteko eta bi urteko ikasleentzako gelak jartzeko duen baimenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Victoria Arraiza Zorzanok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, Hezkuntza kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Zioak

Iragan maiatzaren 3an, Nafarroako egunkari batek Luis Amigó ikastetxeari buruzko berri bat zekarren. Haren arabera, Mutiloabeitiko ikastetxe horrek bere instalazioak handitzeko asmoa du, 24 gelako eraikin bat eginez.

Informazio hartan esaten zenez, ikastetxeak “urtebeteko haurrentzako bi gela ditu –gela bakoi-tzeko 17-18 ikasle ditu–, eta bi urteko haurrentzako beste bi –50 ikasle matrikulatuta–:

Datu horiek ikusita, ondokoa jakin nahi dut:

Luis Amigó ikastetxe itunduak ba al du baimenik urtebeteko eta bi urteko ikasleentzako gelak izateko?

Baimena baldin badu, ikastetxe itundu batek, funts publikoekin ari den batek alegia, nolatan ditu urtebeteko eta bi urteko gelak 0tik 3 urtera bitarteko zikloa arautzen duen Foru Dekretuak adin horretarako ezartzen dituen ratioen gainetik?

Zer ikastetxe pribatu itunduk ditu une honetan urtebeteko edo bi urtekoen gela baimendu gabekak? Zer neurri du gogoan Departamentuak ikastetxe horiek –batez ere ziklo horiek funts publikoekin ematen dituztenek– egoera normaliza dezaten?

Iruñean, 2008ko maiatzaren 9an

Foru parlamentaria: María Victoria Arraiza Zorzano

Galdera, etxetresnen Renove planari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, etxetresnen Renove planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko

Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Galdera

Parlamentari honek ondokoa jakin nahi du etxetresna elektrikoak berritzeko planari buruz:

1. Gaur arte jaso diren eskarien kopurua, zehaztuta horietako bakoitza zein hilabetetan jaso den.

2. Nafarroako Gobernuak eman dituen laguntzen kopurua eta zenbatekoa.

3. Nafarroako Gobernuak dirua itzultzeke dituen eskarien kopurua.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 2an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, transplanteei eta ehunei buruzkoa.

ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako galdera, transplanteei eta ehunei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialdek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat,

honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernu Osasun Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Osasun Batzordeak iragan maiatzaren 9an egindako lan-bileran, agerraldia egin zuen Nafarroako Gobernu Osasun Departamentuko transplanteen eta ehunen koordinatzaile autonomiko Juan José Unzué Gaztelu jaunak.

Parlamentari honek eskatu zuen Unzué jaunak ondotik doazen galderei erantzutea lan-bileran. Batzordean ez zituenez galdera horietako batzuk erantzun, idatziz erantzun ditzan eskatzen dut.

1. Giza ehunak eta zelulak emateko eta lortzeko sustapena, informazioa eta hezkuntza publikoak direla-eta egin diren ekintza dokumentatuak.

2. Osasun arloko profesionalak gai horretan etengabe prestatze aldera egin diren ekintza dokumentatuak.

3. Zer osasun zentro dauden kreditatuta Nafarroan kasuan-kasuan ehunak eta zelulak lortzeko, gordetzeko eta inplantatzeko. Zein izan den horietako bakoitzaren jarduna, kasu bakoitzean adieraziz: jasotako piezak, baztertutakoak, baliozkotuak, inplantatuak, bai eta zelula eta ehunetako pieza inportatuak eta esportatuak. Horietako bakoitzak zein epetarako duen jarduteko baimena.

Sei hilean behin igortzen al zaizkio datuak Transplanteen Nazio Erakundeari?

4. Zer zama ezartzen zaie lorpenekoaz bestelako inplante-zentroetara igortzen diren zelula eta ehunei?

Zer mantentze-kostu du zentro baimendu bakoitzak? Zer kostu du jarduera baimendu bakoitzak?

5. Zentro guztiek betetzen al dituzte kalitatea kudeatzeko baldintza indardunak? Zer sistema erabiltzen da? Zentro guztietan sistema bera erabiltzen al da?

Antzemate zentro guztietan erabiltzen al dira emailak hautatzeko irizpide berberak? Emailak sinatutako protokoloak gordetzen al dira? Non?

Ikuskapenik egiten al da zentroetan? Zer maiztasunez egiten dira? Zer ekintza egin dira urteotan ehunen sarearen kalitatea hobetzeko? Zer inbertsio egin dira zentroetan?

Kalitate-auditoriak egiten al dira? Egiten baldin badira, horiek eranstea nahi dut. Ehun-bankuen Espainiako elkartearen estandarren arabera kreditaturik al daude zentroak? Hala baldin bada, horri buruzko dokumentazioa.

6. Nor da zentro eta jarduera horietako bakoitzaren arduradun teknikoa?

7. Zentroetan lortutako zelula eta ehunen prozesamendua homogenea al da? Zer alde dago horien artean?

Zelulak eta ehunak erauzteko zentro guztietan al daude serotekak? Zenbat denbora gordetzen dira? Norena da horiek gordetzeko ardura?

Ehunak eta zelulak inplantatzeko zentroek serum-laginak gordetzen al dituzte test osagarriak egiten direnean?

Ba al dira hitzarmenak beste autonomia erkidego batzuekin ehunak inportatu eta esportatzeko? Hitzarmenik baldin bada, zer ezartzen da hitzarmen horietan? Zer bolumen mugitzen du kapitulu horrek? Zein dira gehien eskatzen diren ehunak?

8. Denbora errealean jakiten al da zentro ugari horietan biltegi-ratutako ehunak eskuragarri ote dauden?

9. Zer informazio-sistema baliatzen da giza zelulak eta ehunak lortu, ebaluatu, prozesatu, zaindu, gorde eta banatzeko jarduera horietan?

- Ba al dago informazio sistema elektronikorik? Betetzen al da datuak babesteari buruzko legea?

- Ezarrita al dago kode bakarra?

- Bermatzen al da trazabilitatea?

- Egoera makurrak detektatu eta horiei buruz informatzeko biozainketa sistemarik ezarri al da? Zenbat egoera makur gertatu dira?

- Emaileri buruz lortu eta gordetzen den dokumentazioa, modu egokian eta eman ondoko 30 urtez gordetzen al da, modu eskuragarri eta aurkitzeko moduan gorde ere?

10. Bidaltzen al dira laginak erreferentzia-zentroetara, kasuren batean bateragarritasuna eta egokitasuna ezartze aldera? Zentro baimendu bakoitzak erreferentzia-zentro ezberdin bat al du?

11. Nafarroan ba al dago zentro baimendurik giza zelula eta ehunekin ikerketa klinikoa egiteko? Zeintzuk dira eta zein da horien jarduna?

12. Nafarroako Ehun-bankua eratzeko proiektu bat prestatzeko talde teknikoa 2000n sortu zen, orduko zuzendari nagusi Juan Ramón Rábade Iraizozen otsailaren 18ko 81/2000 Ebazpenaren bidez. Zein da talde horren gaur egungo egoera eta hark 2001ean aurkeztu zuen proposamena?

Iruñean, 2008ko maiatzaren 13an

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Galdera, 2006an Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren gastua handitzeari buruzkoa.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, 2006an Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren gastua handitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Kultura kontseilariak idatziz erantzuteko:

Zioen azalpena

Nafarroako Parlamentuko Kultura Batzordeak Nafarroako Orkestra Sinfonikoko langileen ordezkariekin, musikariekin eta kontseilariarekin lanbilerak egin ondotik, ondokoa jakin nahi dut:

Nafarroako Orkestra Sinfonikoak 2.125.601 euroko gastuak ditu kanpoko zerbitzuak direla eta. Gastu horiek, 2005ean, 1.252.493 eurokoak izan ziren.

Zerk eragin du gastua hainbeste igotzea?

Nafarroako Orkestra Sinfonikoak ba omen ditu 461.679 euroko aparteko dirusarrera batzuk –B14 beste ekitaldi batzuetako dirusarrerak eta irabaziak izenekoak–.

Zeri zor zaizkio irabazi horiek?

Zein da Briones jaunaren eta Martínez Izquierdo jaunaren soldata gordina?

Gerta daiteke patronatuak Martínez Izquierdo jaunaren kontratua ez berritzeko aukera aztertzea?

Kontuan hartuko al da zuzendari titularraren kontratua berritzearen aurka dauden musikarien iritzia?

Iruñean, 2008ko maiatzaren 13an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, jakiteko Foru Komunitateko administrazioko eta haren erakunde autonomoetako aldi baterako zenbat kontratuk ekarri duten berekin lanpostuak sortzea eta behin betikoz betetzea eta, horrenbestez, lanpostu hutsak eta haiei dagozkien lan eskaintza publikoak, 2007an eta 2008an.

AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amanda Acedo Suberbiola andreak aurkeztutako galdera, jakiteko Foru Komunitateko administrazioko eta haren erakunde autonomoetako aldi baterako zenbat kontratuk ekarri duten berekin lanpostuak sortzea eta behin betikoz betetzea eta, horrenbestez, lanpostu hutsak eta haiei dagozkien lan eskaintza publikoak, 2007an eta 2008an.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Galderaren testua

Foru Komunitateko administrazioko eta haren erakunde autonomoetako aldi baterako zenbat kontratuk ekarri dute berekin lanpostuak sortzea eta behin betikoz betetzea eta, horrenbestez, lanpostu hutsak eta haiei dagozkien lan eskaintza publikoak egotea, 2007an eta 2008an?

Iruñean, 2008ko maiatzaren 15ean

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

Galdera, jakiteko jarraibiderik eman den edota jarduerarik gauzatu den Nafarroako Foru Komunitateko bulego publikoek irisgarritasunaren arloko gutxieneko baldintzak bete ditzaten eta, zehazki, Arkitektura-oztopoei buruzko Foru Legea betetze aldera.

AMANDA ACEDO SUBERBIOLA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amanda Acedo Suberbiola andreak aurkeztutako galdera, jakiteko jarraibiderik eman den edota jarduerarik gauzatu den Nafarroako Foru Komunitateko bulego publikoek irisgarritasunaren arloko gutxieneko baldin-

tzak bete ditzaten eta, zehazki, Arkitektura-oztopoei buruzko Foru Legea betetze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Amanda Acedo Suberbiolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Galderaren testua

Zure departamentutik, edo zuk koordinatuta, jarraibiderik eman al da edota jarduerarik gauzatu al da Nafarroako Foru Komunitateko bulego publikoek irisgarritasunaren arloko gutxieneko baldintzak bete ditzaten eta, zehazki, Arkitektura-oztopo-
ei buruzko Foru Legea bete dadin?

Iruñean, 2008ko maiatzaren 15ean

Foru parlamentaria: Amanda Acedo Suberbiola

Galdera, udalerrietan adineko pertsonak dituzten beharrianen gaineko azterlanak egiteko udalei ematen zaizkien laguntzei buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, udalerrietan adineko pertsonak dituzten beharrianen gaineko azterlanak egiteko udalei ematen zaizkien laguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Hirugarren adinekoen beharrianen buruzko azterlenetarako dirulaguntzei buruzko galdera.

Zer dirulaguntza ematen zaizkie udalei, hirugarren adinekoek udal-eremuan dituzten beharrianen buruzko azterlanak egin ditzaten?

Iruñean, 2008ko maiatzaren 15ean

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, Nafarroako txirotasun-indizeei eta oinarrizko errentari buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako txirotasun-indizeei eta oinarrizko errentari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERARENTESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko

Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako txirotasun-indizeei eta oinarrizko errentari buruzko galdera

- Zenbait adituren arabera, Nafarroako txirotasun-ehunekoa % 22,1ekoa da, baldin eta adierazle gisa hartzen baditugu kontsumo-unitate bakoitzeko batez besteko dirusarrerak Nafarroan. Zer neurri hartuko ditu Gizarte Gaietarako Departamentuak Nafarroako txirotasun ehunekoa murrizteko?

- Zer erabaki hartuko dira Nafarroa ez dadin izan desberdintasun sozial handieneko erkidegoetako bat?

- Gobernuak ba al du asmorik oinarrizko errenta Nafarroako errealitate ekonomikora egokitzeko?

Iruñean, 2008ko maiatzaren 15ean

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak 2007an dirulaguntzarik edo inolako laguntzarik eman dion Fundación Navarra para la Diversificación Empresarial fundazioari eta, halaber, jakiteko asmorik duen aipatu fundazioari 2008an laguntzarik emateko.

JOSÉ ÁNGEL AGIRREBENGOA IMAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko maiatzaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak 2007an dirulaguntzarik edo inolako laguntzarik eman dion Fundación Navarra para la Diversificación Empresarial funda-

zioari eta, halaber, jakiteko asmorik duen aipatu fundazioari 2008an laguntzarik emateko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 19an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Parlamentari honek galdera bat aurkeztu zion iragan apirilean Nafarroako Gobernuari, jakiteko Nafarroako Gobernuak 2007an edo 2008an inolako laguntzarik eman dion edo emanen dion Fundación Navarra para la Diversificación Empresarial izeneko fundazioari.

Galdera horri (PES-00130) emandako erantzunean, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariak ihardetsi zuen bere departamentuak ez diola laguntzarik eman fundazio horri. Galdera ez zen soilik departamentu horri buruzkoa, eta hortaz berriz ere galdetzen dut ea Nafarroako Gobernuak laguntzarik eman duen edo emanen duen, zein ere den laguntza ematen duen departamentua.

Galdera

Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak Nafarroako 2008rako aurrekontu orokorre buruzko Foru Legearen aurreproiektua dela-eta eginiko txostenean adierazi zuen ezin izan zela identifikatu kontusail bat ere Fundación Navarra para la Diversificación Empresarial izenekoaren lanei laguntzeko. Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

a) Nafarroako Gobernuak eman al dio inolako laguntzarik 2007an Fundación Navarra para la Diversificación Empresarial izenekoari? Eman baldin badio, laguntzaren zenbatekoari, kontzeptuari eta kontusailari buruzko informazioa jaso nahi dugu.

b) Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik aipatu fundazioari inolako laguntzarik emateko 2008an? Emateko asmorik baldin badu, laguntzaren zenbatekoari, kontzeptuari eta kontusailari buruzko informazioa jaso nahi dugu.

Iruñean, 2008ko maiatzaren 15ean

Foru parlamentaria: José Ángel Agirrebengoa
Imaz



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

**HARPIDETZA
ORRIA**

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 47,00 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,25 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,40 »	